

**2014KO
EKITALDIKO
AURREKONTUAREN
MEMORIA**

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	3
2.- FINANTZA-EGOERA.....	4
3.- AURREKONTUA EGITEKO KONTUAN HARTU DIREN IRIZPIDEAK.....	4
4.- LORTU NAHI DIREN HELBURUAK.....	5
5.- AURREKONTUAREN EDUKIA.....	17
6.- 2014KO EKITALDIKO AURREKONTU-PROIEKTUAN EGIN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK, 2013KO EKITALDIKOAREN ALDEAN.....	19
7.- AURREKONTU BATERATUA	21

1.- SARRERA

Udal diru-sarrerek, 2013koarekin alderatuz gero, 2014an zertxobait gora egingo duten aurreikuspena kontuan hartuta egingo dio Udalak aurre datorren urteko ekitaldiari. **Diru-sarrerek % 4,45 igoko direla espero da**, batez ere udal zerga zuzenengatiko bilketa % 6,5 igoko dela aurreikusten delako, besteak beste azken bi urteetan zerga horien kudeaketan egin diren hobekuntzengatik, eta Udalkutxaren ekarpenen aurrerakina %7 igoko dela iragarri duelako Bizkaiko Foru Aldundiak.

Diru-sarreraren atal horiek ekar lezaketan igoera, halere, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergak duen beherako joerak galgatu du. Kontzeptu honen arabera bilduko den kopurua 2013rako aurreikus zitekeena baino %37,5 txikiagoa izango dela aurreikusten da. Halaber, tasa eta prezio publikoengatiko bilketak ere, gora baino, behera egin dezake.

Foru Aldundiak eta Jaurlaritzak hainbat egitasmo finantzatzeko eman ohi dituzten diru-laguntzak mantentzea aurreikusten da. Finantzazio iturri horiek inbertsioetarako gehitzeko ahalegina egingo da aukera dagoen deialdi guztietara aurkeztuz.

Diru-sarreraren aurreikuspen honetatik abiatuta, aurrekontu orekatua osatu da, eragiketa arruntetako gastuen igoeraren portzentajea aurrekontuaren igoeraren portzentajearen azpitik dagoelarik. Horrenbestez, aurrezkoa %19an igoko dela aurreikusten da. Pilatuta zuen zor guztia 2013an kitatu duenez, Udalak bitarteko gehiago bideratu ahal izango du inbertsio errealetera.

Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastua %4,3 igoko dela aurreikusten da 2013an aurreikusi zenarekiko, zerbitzuek izan duten prezioen gorakadaren gaintik igo ere, herri bideen, saneamendu eta ur-hornikuntzaren sarearen eta eskola publikoaren mantentze lanetarako partida gehigarriak aurreikusi direlako.

Udalerrian jarduten duten elkarte eta erakundeekiko diru-laguntzen kudeaketan eginiko hobekuntzek gizarte izaerako ondasunen esparru honetako inbertsioa gastua handitu gabe mantentzea ahalbidetu du.

Aurrezki garbiak gora egingo duela aurreikusten denez gero, %43 igo daiteke inbertsio errealean kapitulua, 2013rako aurreikusitakoarekin alderatuz gero. Inbertsioetara, diru-sarrera arrunten %6,74 bideratzea aurreikusten da. Portzentaje hori positiboa da egun eta handiagoa urtez urtez, duela bost urte negatiboa zelarik. Izan ere, 2009an %-0,19koa izan zen eta %0,23koa 2010ean eta 2011n, 2012an % 4,07 izan zelarik eta %4,86 2013an.

Aurrekontua egiteko herritarren parte-hartze prozesuak, bestalde, Udalak aurrean dituen erabaki eta erronka nagusiak herritarrei zeintzuk diren adierazteaz ahalbidetu du, baita erronka eta erabaki horiekiko herritarrek duten iritzia jasotzea ere.

Testuinguru orokor horretan, udal gobernuak aurreikusi diren gastuen arabera doitu du aurrekontua, baliabideak optimizatzeko bidean aurrera eginez eta inbertsio premiazkoenak kontuan hartuz, gizarte-ondasunetako inbertsioak baztertu gabe.

2.- FINANTZA-EGOERA

Diru-sarrera arruntek gastu arruntak estaltzen dituzte. Aurrezki garbia 2013rako aurreikusten zena baino %20 gehiago izatea aurreikusten da. Ez da mailegurik aurreikusten.

3.- AURREKONTUA EGITEKO KONTUAN HARTU DIREN IRIZPIDEAK

2014ko ekitaldirako aurrekontu-proiektua egiteko abiapuntu izan dira aurreko ekitaldietako aurrekontuen informazioa, aurrekontu-arduradunen, udal taldeen eta parte hartu duten herriko bizilagunen proposamenak.

Lan hori errazteko, arlo bakoitzeko arduradunek eskuragarri izan dute partida bakoitzaren aurrekontu arloko informazioa, baita legezko ezarpenen nahiz hartutako konpromisoen bidezko segidako traktuaren betebeharrenak ere. Beraz, betebeharrak horien arabera doikuntzaren aurreikuspenekin batera, programa edo inbertsio berrien arabera beharren aurreikuspenak ere jaso dira.

Proposamen horiek gastuaren izaera ekonomikoaren arabera antolatu dira, inbertsio-jarduera eta gastu arrunta bereizita, eta gizarte-premiaren arabera ezarri dira lehentasunak, betiere aurreikusitako diru-sarreraren marjinaren barruan.

Horrez gain, Lanpostuen Zerrenda (LPZ) aldatzeko 2013ko otsailetik bideratuta dagoen proposamenaren arabera aldaketak ere sartu dira. Balio berdina osatzen duten lanpostuak amortizatuz eta lanpostu biren berariazko osagarria jaitziz orekatu da lanpostuen sorreren ondorioz edo lanpostuen balorazioaren arabera doitu beharreko osagarrien ondorioz hainbat partidetan izandako igoera.

Aurrekontu-egituraren aldaketa orokorrik egin ez denez, 2012ko ekitaldian ezarri ziren arlokako egiturak aplikatzen jarraituko dugu, aldaketa zehatz batzuekin:

- Haur eskolaren programa funtzionala sortu da, aurrekontu eta kontabilitate informazioa hobetzeko eta ikastetxe biak programa berriaren barruan izateak zekartzan bikoizketak saiheste aldera;
- Zenbait partidak beste kontzeptu edo programa funtzional bati esleitu zaizkio;
- Zenbait partida ezabatu, sortu edo berrizendatu egin dira 2013ko ekitaldian egindako aurrekontu aldaketan ondorioz, bikoizketak deuseztatze edo programa berriak aurreikusi direlako;
- Zenbait gastu partiden binkulazio juridikoa doitu da, herribideak eta saneamenduaren eta ur-hornikuntzaren sarea mantendu, konpondu eta zaintzeko partidetan.

Azkenik, Aurrekontu proiektuak sarreren I. eta II. Kapituluen % 10a bideratzen du udal lurzoru-ondarearekin zerikusirik duten inbertsioetarako.

4.- AURREKONTUAREKIN LORTU NAHI DIREN HELBURUAK

Sopelako 2014ko ekitaldiko aurrekontuan, Udaltzaren jardun ekonomikoaren programa gisa, baliabideak optimizatu nahi izan dira, gastu arrunta kontrolatuz, arrazionalizatuz eta eutsiz. Aurrekontu hauetan, Sopelako bizilagunen beharrezko erantzutea izan da lehentasunezko helburua, gaur egungo egoera ekonomikoan konpromiso eta inplikazio handiagoa eskatzen baitiote Udalarari.

Helburu orokor horren barruan, LPZn proposatzen diren aldaketan helburua udal zerbitzuak, udal langileria, eraginkorrago izatea da, benetako eginkizunik ez duten lanpostu hutsak gaur egun estali gabe dauden beharrak estaltzera bideratuz.

Halaber, baliabideen portzentaje handiago bat bideratu nahi da sustapen ekonomikora eta enplegura, baita Gizartekintza eta etxebizitza alorretako beharrei eustera ere. Aurrekontuen proiektuak udalerraren populazioaren gaztetasun mailaren arabera –Autonomi Erkidegoko populazio gazteenetarikoa da– ere kontuan hartzen du.

2014rako Aurrekontu proiektu honen helburua da, baita ere, sarrera arruntan ahalik eta portzentaje handiena inbertsioetara bideratzea, azpiegiturak hobetu eta sortzeko, herritarren ongizatea hobetzeko. Inbertsio errealean edo materialen kapituluan, premia biziko hainbat eraberritze-lan egitea aurreikusi da, bai eta udalerrria beharrezko azpiegitura berri zenbaitez hornitzea ere.

2012ko aurrekontuan ezarritako helburu estrategikoak lortzeko helburuarekin, 2014.

urterako ekintza hauek aurreikusten dira.

4.1.- HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA, INGURUMENA, HERRI-LANAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

Sail honek aurreikusi duen aurrekontuak 2014an garatu nahi dituen hainbat programa hartu ditu kontuan, 2012ko aurrekontuan jasotako helburu estategikoak betetze aldera.

I. Kapituluaren, langileriaren arloan, Bulego Teknikoa indartzeko aldi baterako programa bat garatzea aurreikusten da, egun dagoen lan pilaketari aurre egiteko zenbait hilabetez bigarren arkitekto bat kontratzekoa alegia.

Ondasun arrunt eta zerbitzuen kapituluaren, II. Kapituluaren alegia, sailaren menpe dauden kontratuei aurre egiteko partidak jaso dira (kaleen eta eraikinen garbiketa, lorezaintza, kale argiteriaren eta semaforoen instalazioen mantentze-lanak,...), prezioei dagokien eguneraketa kontuan hartuz.

Sail honetan jaso da VI kapituluaren osoa, inbertsio errealetarakoa, udal lurzoruetarako inbertsioak barne, sarreraren ataleko I. eta II. Kapituluaren % 10aren besteko kopuruan. Horrela jaso da sail honetako teknikariei egokituko zaielako partida horiek kudeatzea. Halere, inbertsioen helburuaren arabera programa funtzionaletan jaso dira partidok. Salbuespen bakarra altzari eta informazio ekipoetan inbertitzeko partidak dira; partida hauek sailkapen organikoaren 09 sailean, Zerbitzu Orokorren sailean, jaso dira.

- **Lurralde-plangintza jasagarria**

2014ko ekitaldian Arau Subsidiarioen berrikuspenari eta Hiri Antolaketarako Plan Nagusiaren idazketari emango zaio hasiera. Programa honi hasiera eman zion Udalbatzaren akordioari jarraipena emateko, hainbat urtetarako aurreikuspena egin da, programaren izaeraren arabera.

Hurrengo lau urteetan programa honi guztira 600.000 euro bideratzea aurreikusten du proiektuak, 150.000 euro urtean. Inbertsioen kapituluak, horrenbestez, 2015., 2016. eta 2017. urteetarako kopuru horretako konpromisozko kreditu banarekin hornitzea proposatzen da. 2014ko ekitaldirako, aldiz, 75.000 euro aurreikusten dira, programa honetarako aurreko urteetan aurreikusitako kreditua gehituko zaiolarik, eraginpeko finantzaketa duen gastua baita.

Alor honetan egin beharreko lanei 2013an egindako bi lanen emaitzak ere gehituko zaizkie, hala nola, Hirigintza Inklusiboaren Azterlanaren ondorioak eta Tokiko Agenda 21aren esparruan egindako Sopela 2020 tokiko ekintza-planaren ondorioak eta ekintzak.

2014rako aurrekontuen proiektuak, bestalde, Irisgarritasun Planaren zein Energia Eraginkortasunaren eta Tokiko Agenda 21 txostenetatik ondorioztatzen diren eta ondoren azaltzen diren gastu edo inbertsio aurreikuspenak ere jasotzen ditu.

- **Etxebizitza izateko eskubidea**

Aurrekontu proiektuan 75.000 euroko partida bat jaso da inbertsioen kapituluan Loiolan etxebizitza publikoen proiektua zehazte aldera. 2013ko ekitaldia itxitakoan, aurreko ekitaldietatik datorren kreditua gehituko zaio partida horri. Zehaztutako proiektuak proiektua gauzatzearen kudeaketari buruzko erabakia hartzeko balioko du.

- **Udalerrria eta udal zerbitzuak hobetzea**

Horrez gain, besteak beste, honako ekintza hauek aurreikusi dira Udalerrria eta udal zerbitzuak hobetzeko:

- Irisgarritasun Plana betetzen hastea. Udalak Irisgarritasun Plan bat egin du, hurrengo urteetan bete beharko duena, bi ardatz nagusi oinarri: batetik, kale eta esparru publikoak oinezkoentzako edo oinezkoak lehentasuna izango duten esparruetan bihurtu eta, bestetik, espaloiak eta, orokorrean, herri bideak eta, zehazki, oinezkoen ibilbideak irisgarritasun irizpideen arabera egokitu. 2014. urterako udal aurrekontuen proiektuak 150.000 euroko partida jasotzen du VI Kapituluaren oinezkoentzako esparruak sortzeko; 2013ko ekitaldia itxitakoan, ekainean helburu honetarako gaitutako kredituaren soberakina gehituko zaio. Horrez gain, %100ean handitu da (50.000 euro gehiago) herri bideak konpondu, mantendu eta zaintzeko aurreikuspena.
- Garraio publikoaren hobekuntza. Arriaterako autobus geltokian markesina bat jartzea aurreikusten da. 15.000 euro jaso dira inbertsio honi aurre egiteko.
- Udal eraikinen instalazioen eta kaleko argiteriaren energia eraginkortasuna hobetzeko inbertsioa, 30.259,63 eta 80.000 euro hurrenez hurren. Partida hauetan kale argiteriaren kable lapurretak ekiditeko arian-arian neurriak jartzea ere aurreikusi da.
- Kale argiteriaren eta semaforoaren instalazioak araudira egokitzea (75.000 euro).
- 20.000 eurotan handitu da Zipiriñeko Eskola Publikoa konpontzeko, mantentzeko eta zaintzeko II Kapituluako partida.
- Umeentzako kirol instalazioen sarea osatzea ere aurreikusten da, 50.000 euroko inbertsioa tartean.

- Gatzarrineko bidegorria egiten hasia aurreikusten da, udalerraren sare ziklagarria osatze aldera. Bi urtetan egingo dela aurreikusten da, guztira 517.000 euroko kostua izango duelarik. Aurrekontu proiektuan kostu osoa jasotzen da, 2014rako 250.000 euro eta 2015erako konpromisuzko kreditu bat, 265.000 eurokoa, aurreikusten direlarik.
- Liburutegi berriaren proiektua garatzea aurreikusten da. Horretarako 75.000 euroko partida bat aurreikusten da VI Kapitulan. Partida horri, aurreko aurrekontuetan helburu horretarako dagoen kreditua gehituko zaio ekitaldia itxi ondoren. Zehaztutako proiektuak proiektua gauzatzearen kudeaketari buruzko erabakia hartzeko balioko du.

Lanpostuen Zerrenda (LPZ) aldatzeko proposamenak, halaber, liburutegia Liburutegi eta Artxiboko Teknikari Arduradun lanpostu batez hornitzeko proposamena jasotzen du. Hori ezinbestekoa da Sopelaren tamainako udalerraren baten mailarako udal liburutegi zerbitzu-proiektua garatzeko. Liburutegia beste Atezain lanpostu batez hornitzea ere proposatzen da. Hau ere beharrezkoa da liburutegia egun dagoen eraikinean udaberrirako handitzen denerako zein etorkizuneko eraikin funtzioaniztunean kokatzen denerako.

- Udal Administrazioaren hobekuntza. Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposamenak, esan bezala, Liburutegi eta Artxiboko Teknikari Arduradun lanpostu bat sortzea aurreikusten du, ezinbestekoa udal administrazioarako. Horrez gain, 20.000 euroko partida bat jasotzen da, artxiboa eguneratzeko, arduradunaren lanpostua beteta egon arte.
- Saneamendu eta ur-hornikuntzaren sarearen hobekuntza. 30.000 eurotan handitu da azpiegitura hauek konpontzera, mantentzera eta zaintzera bideratuta dagoen II. Kapituluako partida hau.

4.2.- KULTURA

Kulturaren arloko inbertsioa eta kultur ekoizpenaren sustapena, estrategikoak direnez, mantentzeko eta hobetzeko ahalegina egingo da. Xede horrekin, hainbat helburu ezarri dira.:

- Udal liburutegiaren proiektua garatzea, proiektuarentzako berarentzako partida bat jasoz zein behar duen langile-plantilaz hornitzeko LPZren aldatzea proposatuz.
- Partidak kultur programen arabera doitu.
- Kultur, aisialdi eta kirol programazio eta kudeaketari esleitutako langileen koordinazioa indartu, euren eraginkortasuna hobetzeko. Hartara, LPZ aldatzeko

proposamenean, Programazio eta Zehar Ekintza Arduradun lanpostu baten sorrera jasotzen da, esparru honen guztiaren koordinatzaile gisa. Lanpostu horrek, gainera, herritarren parte-hartze planen eta udal Administrazioaren baitako aukera berdintasunaren eta hizkuntza normalizazioaren zeharlerroak ere garatu beharko ditu.

- **Udal liburutegia**

Aurrekontu proiektuak udalerria kalitatezko liburutegi zerbitzu batez hornitzeko ahalegin irmoa jasotzen du. Liburutegi berriaren proiektua garatzeko inbertsioen kapituluan jasotzen den partidaz gain, Liburutegiko Teknikari Arduradun lanpostu bat eta Liburutegiko Atezain lanpostu bat gehiago sortzea jasotzen da. Ezinbestekoak dira biak proiektu hau garatzeko; lehena zuzendaritza lanak egiteko, kalitatea bermatzeko; bigarrena, zerbitzu honen tokia handitzea eta ekintzen zabalkundea bermatu ahal izateko.

- **Kurtzio kultur etxea**

Kurtzio kultur etxea osoki sustatzen jarraitzeko apustua egin da, eta, horretarako, kultur ekoizpena zaindu eta indartuko da. Programazio askotarikoa eta bateratua eskainiko du, era guztietako ikuskizunez osatua, eta, hala, diziplina desberdinak gerturatuko zaizkie herritarrei. Hala, dantza- eta antzerki-zirkuituaren aldeko apustua egiten jarraituko da, eta, aldi berean, presentzia aktiboa izango dute estilo guztietako musikak, literaturak eta arte plastikoek.

Kurtzio kultur etxeko programazioan txertaturik egongo dira, datorren urtean ere, euskara eta euskaraz ekoiztako kultura; hala, Kurtzioko eragile aktibo izaten jarraituko dute herrian eta herritik gertu sorturiko kultur sorkariek, Udalak herri-ekoizpena sustatzeko eta ekoizpen horren aberastasuna bermatzeko hartua duen konpromisoa betez.

Kurtzio kultur etxeko jardueraren xedea izango dira film laburren proiektzioa, pintura-erakusketak, argazkilaritza-proiektuak, liburu-aurkezpenak, antzerki-sorkariak, eta beste hainbat eta hainbat.

Kurtzioko haur eta gazte espazioen hezkuntza-helburuak bermatuko dira, ludoteka eta gazteleku zerbitzuen kalitatea ikuspegi pedagogikotik bermatuz. Eskolako oporraldietarako eta udako programazio-eskaintza indartuko da, jarduera edo ikuskizunen arloan eta, batez ere, udalekuen arloan. Udalekuetan parte hartzeko eskaria nabarmen handitu da azken urtean, eta ehunka erabiltzaile ditu.

Gazteek eta helduek izango dute aukera Kurtzioko ikastaro eta lantegietan parte hartzeko.

- **Kultur jarduerak**

Xedea da kultur ekoizpena zaintzea eta prestigioa ematea, eta, horretarako, Sopela gunean zein Larrabasterran eskainiko dira emanaldiak. Herri osoa kulturaz janztea da emanaldi, musika-ziklo, folklore-jaialdi eta antzerki-emanaldi horien xedea, eta irizpide hauei jarraiki antolatu dira:

- Kultura osoki sustatzea, kulturartekotasunaren irizpidea kontuan hartuta.
- Euskarazko kultura eta kalitateko euskarazko ekoizpenak sustatzea, eta, horrez gain, musika, abesti eta dantza tradizionalen ikuspegi garaikide bat eskaintzea.
- Era guztietako diziplina artistikoak sustatzea eta kulturartekotasuna bultzatzea.
- Herriko eragile sortzaileekin elkarlanean aritzea, udalerrian kultur sorkuntza eta ekoizpena sustatzeko.
- Uribe Kosta eskualdeko kultur erreferente izatea, udalerrri moduan.

- **Jaiak**

Herriko jaiak Jaietako Herri Batzordearekin elkarlanean antolatuko dira, eta, hala, adin eta arlo guztietako pertsonen parte-hartzea bermatuko da. Neurriak ezarriko dira festetako programazioa parekidetasun- eta berdintasun-printzipioetan oinarriturik egon dadin.

Herriko musika, kirol eta kultur taldeen parte-hartzea mantentzearen eta handitzearen alde egin da, jai egiaz parte-hartzaile batzuk sustatzeko helburuarekin. Santa Ageda, San Joan, San Pedro, Karmen, Santa Marina, San Andres; jai horietan guztietan, helburua parte hartzea da, jai herrikoi eta euskaldun batzuk sustatuz.

4.3.- EUSKARA

Euskararen erabilera komunikazio-eremu guztietan eta udalerrri osoan sustatzeko apustua egiten jarraitu nahi dugu, eta, horretarako, zeharkako lanarekin jarraituko dugu, oinarritik beretik hasita.

Arlo honetan 2014rako egin den aurreikuspenak Mankomunitateko zerbitzu teknikoek Euskara Sustatzeko Ekintza Planean sartzea proposatuko dituzten ildoak eta

ekintzak jasotzen ditu.

Horrez gain, Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2013-2017 Plana garatzeko partida bat ere jaso da, Plana bera 2013ko irailaren 24ko Osoko Bilkuran onartu zelarik.

2014rako aurrekontu proiektuan jasotako zenbait partida zehatz doitu egin dira, bautzuen aurreikuspenak handituz eta beste batzuk gutxituz. Adibidez:

- Erdira jaitsi da lehiaketa askean emateko diru-laguntzetarako partida, urtez urte soberakin nabaria sortzen baita.
- Gurasoak Lagunduz eta Euskara Atseginez programetarako partidak, aldiz, gurasoentzako, merkatarienezako eta ostalarientzako euskarazko eskoletarakoak, nabarmen handitu dira. Handitze hori erreal baina nominalagoa da, izan ere, aurreikuspena benetako kostuari egokitzearen ondorio baina ez baita.

Haur eta gazteentzako programak sustatuko dira, hezkuntzaren eta kirolaren arloan.

- *Euskara indartzeko saioak* programarekin jarraituko da. Horren helburua da Zipiriñeko eskolan eta Ander Deuna ikastolan haurren ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasuna hobetzea.
- Gazteen artean irakurzaletasuna zabaltzeko dinamikak garatuko dira, eta bertsolaritza bereziki bultzatuko da, euskararen erabilera sustatzeko.
- Euskarazko lantegiak, ikastaroak eta txangoak urte osoan eskainiko zaizkie gazteei.
- *Kirolean ere euskara* proiektua jarriko da abian. Horren helburua da kirol jardueran euskararen erabilera sustatzea. Ehunka haurrek jokatzen dute futbolekin Sopelan; beraz, baliabideak eskainiko zaizkie futbol-elkarteetan, eskolan eta ikastolan gaztetxoek entrentzen dituzten pertsonei, entrenamenduak euskaraz egin ahal izateko treba daitezen. Hori programa oso baten esparruan garatuko da. Hain zuzen, programa horretan, entrentzaileak lan-saio teoriko eta praktikoetara joango dira, eta, aholkularitza gain, baliabide materialak jasoko dituzte.
- Autoeskoletan gidabaimena euskarazko programen bidez ateratzeko hautua egiten duten pertsonei diru-laguntza bat emango zaie, prestakuntza-arlo horretan euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

Gurasoak lagunduz programarekin jarraituko da, familia bidezko euskararen transmisioa eta familia-arloko erabilera sustatzen jarraitzeko. Saio erakargarriak antolatuko dira, euskaraz, gurasoentzat. Gainera, gurasoek seme-alabekin batera egiteko moduko euskarazko ekimenak garatuko dira: jolasak euskaraz, kultur irteerak, liburu eta jolasen

azokak, eta abar.

Ikastaroak eta bestelako baliabideak eskainiko zaizkie merkatariei eta ostalariei, *Euskaraz atseginez* kanpainaren esparruan, saltokietan eta ostalaritza-lokaletan euskararen erabilera sustatzeko. Diru-laguntzak emango zaizkie talde horiei beren establezimenduetako errotuluak euskalduntzeko.

Aurrekontuak IV Kapituluari jasotzen du "Sopelako Udal Euskaltegia" Erakunde Autonomoari egingo zaion ekarpena. Ekarpenerak 2013ko kopuru bera izango du, ez baita aurreikusten euskategiko gastuak handituko direnik.

4.4.- HEZKUNTZA

Haur eskolarentzako berriazko programa funtzionala sortu da, aurrekontu eta kontabilitate informazioa hobetzeko.

Zipiriñeko eskola eraikinaren mantentze lanen gastuetarako partida 20.000 eurotan handitu da, eraikinaren mantentze egokia bermatzeko.

4.5.- GIZARTEKINTZA

Programa funtzional honen partidaren kopuru nominala gutxitu egingo da, hiru esparrutan egingo diren doikuntzengatik:

- Berdintasuneko diru-laguntzetarako partidak dagokion programari esleituko zaizkio.
- Gizarte Laguntzailearen lanpostua amortizatzea proposatzen da, lanpostu honen eginkizunak Mankomunitateak baititu esleituta.
- Errenta gutxien duten familiei OHZ eta hondakinen tasa ordaintzeko diru-laguntzen partida eskaeraren arabera doitu da.

Izan ere, Gizarte Ongizatearen arloko zerbitzu gehienak Mankomunitateak kudeatuko ditu, eta Udalak jarraipen- eta koordinazio-lanak egingo ditu. Ondoko zerbitzu hauek ematen jarraituko da, baina Mankomunitateak erabaki behar du osoki eutsiko zaien: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Gizarte Heziketaren arloan Esku Hartzeko Taldea, Ebaluazio Zerbitzua, Diagnostikoa, Esku-hartzea eta Bitartekaritza, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzua, Droga Mendekotasunari Aurre Hartzeko Zerbitzua.

Proiektuak, beraz, Mankomunitateak zerbitzu hauek ematen jarraitzeko Udalak 2014an egin beharko dion ekarpenaren aurreikuspena jasotzen du.

2013an "Lagun Artea" jubilatuen elkarteak egoitatzat duen udal lokalean hainbat mantentze lan egin ondoren, eginkizun horietarako partida ohiko kopuruetara doitu da. Aldiz, podologia zerbitzua berreskuratuko da eta, gainera, elkarteak ematen dituen zerbitzuak ere mantenduko dira, hala nola, ile apaindegia, taberna, gimnasia eta igeriketa ikastaroak, eta gainontzeko jardueretarako diru-laguntza ere.

Bestalde, Sopelako Udala Elorduy Fundazioaren nagusietako bat izanik, erakundearen mantenurako eta jarduerarako diru-laguntza bat ere jasotzen da. Horren osagarri, etorkizunean Udalaren eta Fundazioaren artean egin litezkeen akordioen ondorioz, Barrikako egoitzako eguneko zentroko erabiltzaile bihur litezkeen sopoloztar nagusien garria eta otorduak ordaintzeko partida bat ere jaso da.

2012an onartu zen udal ordenantza berria 2013an aplikatzen hasi ondoren, errenta gutxien duten familiei OHZ eta hondakinen tasa ordaintzen laguntzeko partida benetan egon den eskaera mailari hobeto egokitutako aurreikuspenen arabera doitu da. Doikuntza hau, halere, araudia aldatuz gero onuradunen kopurua igo litekeela kontuan hartuta egin da. Era berean, egoera berezian dauden familiekiko diru-laguntzak ere mantentzen dira.

Azkenik, etxe-kaleratzeengatik kaltetutako pertsonak laguntzeko protokoloaren garapena Sailaren jaduera-ildoan artean sartu da, Udalbatzaren akordioa betetze aldera.

4.6.- GARAPENERAKO LANKIDETZA

Daurako saharar herriarekin Sopelak duen senidetze akordioarekin bat, pertsona nagusien egoitzaren jardueraren sostengurako ekarpenaren aurreikuspena jaso da. Partida hori sinatutako hitzarmenean jasotako zehaztasunen arabera doitu da.

Horrez gain, Euskal Fondoaren bitartez garapenerako lankidetzarako egin ohi den ekarpenarekin jarraitzea aurreikusten da, Euskal Fondoaren kuota bera ere jaso delarik.

4.7.-EMAKUMEA ETA BERDINTASUNA

Berdintasun-zerbitzua bermatuko da. Zerbitzu hori, neurri batean, Mankomunitateak kudeatuko du, eta Udalaren ardura izango da zerbitzuaren jarraipena eta koordinazioa

egitea.

Ezinbestekoa da berdintasunaren inguruan sentsibilizatzen jarraitzea (azaroaren 25eko eta martxoaren 8ko ekitaldiak). Horretarako, aurten ere prestakuntza-ikastaroak antolatuko dira gurasoentzat eta ikasleentzat (berdintasun-ikuspegian oinarrituriko sexu-hezkuntza). Aldi berean, Uribe Kostako Emakumeen Kontseiluaren ekimenak sustatuko dira, eta Uribe Kostako elkarte guztien parte-hartzea bermatuko da, bai eta emakume-erakundeena eta erakunde independenteena ere.

Itzartu Emakumeen Elkarteari aurten ere emango zaio diru-laguntza, erabiltzen duen udal lokala mantendu dezan eta jarduerak antolatzen jarraitu ahal izan dezan.

Berdintasunerako jarduera soziokulturalaren partida handitzea jaso da, udalerrian feminismoa sustatu eta indartzeko estrategia bati buruzko azterlan bat egiteko.

4.8.- KIROLA

Programa funtzional honetako partida beharantz doitu da, kirol instalazioen funtzionamendu eta mantentze-lanetarako gutxiago beharko dela aurreikusten delako eta 2009ko EPEan konprometitutako Kultura, Aisialdi eta Komunikazioko Teknikari Laguntzaileen lanpostuak hornitu ondoren, kudeaketa soziokulturalaren kontratua desagertu egin delako.

Bestalde, alor honetako diru-laguntza gehienak, erakundez erakundeko hitzarmenen bidez zehaztu dira, ematen diren diru-laguntzen eraginkortasuna hobetzeko.

Kirol jarduerak sustatzeko jarduera-programarekin jarraituko da.

4.9.- ENPLEGUA ETA TURISMOA

Turismo Sailak Udalean herriko ekonomia garatzeko eta herriko balio turistikoak ezagutarazteko lagungarri diren ekintzak sustatzearen aldeko apustua egiten jarraituko du.

Horregatik, 2014. urtean indartu egingo dugu gure paisaiak ezagutarazteko apustua, itsasertza eta itsaslabarren balio geologikoa eta surfa, gure hondartzetako kirol bereizgarria, nabarmenduz. "Burdinazko gerrikoaren" gure hondakin historikoak balioztatuko ditugu, eta gure herria erakargune gehiagoz hornituko dugu.

Ildo honetan, 2014an udal aterpetxe turistikoaren proiektua garatzen joatea aurreikusi da. Proiektua zehaztuta, bere gauzapenaren kudeaketari buruzko erabakia hartzea ahalbidetuko du. Autokarabanentzako esparru turistikoaren proiektuarekin aurrera egitea ere aurreikusten da, baita udalerriko hostalariekin elkarlanean kanpainak egitea,...

2013an hondartzetako komunak eta dutxak garbitzeko udal zerbitzu propioa izateko 2013an eginiko ahaleginarekin jarraituko da, erabiltzaileen artean izan duen balorazio handia ikusita, Bizkaiko hondartzetako hoberenetarikoa hain zuzen ere.

Gure herria Euskal Herriko helmuga turistiko bihurtzea nahi dugu, eta, horretarako, sektoreko azoketan izango gara —FITUR; SEVATUR; SITC; Expovacaciones...—, Bizkaia Euskal Kostaldean eta Jata-Ondon parte hartuz.

Enpleguari dagokionez, Behargintza Uribe Kostan parte hartuz, ekintzaileak, ostalariak eta tokiko merkataritza babesteko ekintzak egingo ditugu, eta lan-bitartekaritzako programak, enpresak sortzeko, berrikuntzaren inguruan sentsibilizatu eta gerturatzeko programak eta prestakuntza-programak ere egingo ditugu. Azken batean, enplegua sortzeko eta gure herriko ekonomiaren dinamismorako lagungarri diren ekintzak babestuko ditugu.

Udalak enplegua sustatzeko programa bat garatuko du Behargintzarekin, aurreikusita dituen aldi baterako bere bi enplegu programez gain.

4.10.- HERRITARREN SEGURTASUNA

Udaltzaingoaren zerbitzuek herriko kasuistika eta arazoak bukatzea eta arautzea izango dute lehentasunezko helburu, bai eta herritarren beharrezanean erantzutea ere, herritarren segurtasunarekin loturiko alderdietan.

Udalerrriak, bere ezaugarri geografikoengatik, batetik hirigunea baitu eta hor adineko biztanleen dentsitatea handia baita, eta bestetik aldiriak baititu eta hor auzune barreiatuak eta hondartzak baitaude, eskari desberdinak ditu, baina, hala ere, izendatzaile komun bat dute: arazoak ostalaritza-establezimenduekin ixteko ordutegiarengatik, terrazatarako espazioen gehiegizko erabilera, zarata-arazoak, istripu asko gertatzen diren errepideetatik hurbil egotea, animalien jabeek espazio publikoak behar bezala erabiltzen dituztela zaindu beharra, eta abar.

Beraz, 2014an lehentasunezko helburuak honako hauek izango dira:

- Udaltzaingoa kudeatzeko organigraman aurrera egitea, kalean duten presentzia hobetzeko, patruilen eraginkortasuna handitzeko eta herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko.
- Gure udalerrian jarduten duten ertzainekiko harremana estutzea, jadanik sinatutako hitzarmenak oinarritzat hartuta, Udaltzaingoaren zerbitzurik ez den gaueko orduetan jarduteko beharrei erantzuteko.
- Udaltzainak udalerriko ostalaritza-establezimenduetako ordutegia babesteko eta kontrolatzeko prestatzea.
- Udal plantila benetako beharren arabera doitzea. Horrenbestez, Kabo Buruaren lanpostua eta plaza amortizatuko dira, LPZn eta plantila organikoan iraungi beharreko moduan jasota baitzeuden, eta Udaltzaingoko Administrazio-azpiofizialaren lanpostua amortizatzea proposatzen da, aginte-kateko bikoizketak ekiditeko. Azkenik, bigarren jarduerarako Agenteen berariazko osagarria gutxitzen da, gainontzeko agenteekin parekatzeko. LPZren aldaketa hauen ondorioz, Herritarren Segurtasunerako aurrekontua gutxitu egiten da.

4.11.- UDAL ADMINISTRAZIOA

2014rako aurrekontu proiektuak, LPZ aldatzeko berarekin batera bideratu den proposamenetik eratorritako aldaketak jasotzen ditu. Proposamenaren helburua da, hutsik eta eginkizunik ez duten lanpostuak udal administrazio eraginkorragoa lortzeko behar diren eginkizunak garatuko dituzten lanpostuetarako eraldatzea.

Proiektuan, horrez gain, Udalaren informatikako programak, ekipoak eta sistemak berritzeko aurreikuspena jasotzen da. Hartara, 12.000 euroko partida banaz hornitu dira II. eta VI. Kapituluak, lizentzia eta ekipo informatikoak berritzeko beharko den gastua eta inbertsioa aurreikusiz.

Azkenik, orain arte nominen programarako zegoen partida, nominen eta ordutegi kontrolerako programarako jaso da 2014rako, ordutegiaren kontrolerako sistema berriari eta langileen ordezkartzarekin adostutako araudiaren ezarpenari aurre egiteko. Partida berri honek ordutegi kontrolaren sistema informatikoa mantentzeko aurreikusten den kopurua ere jasotzen du.

5.- AURREKONTUAREN EDUKIA

Aurrekontua egiteko, 2012ko ekitaldian onartutako egiturari eutsi zaio; hain zuzen, ekitaldi hartako aurrekontuak erabat eraldatu ziren aurreko ekitaldietakoekin alderatuz.

2012ko ekitaldian ezarritako egitura berriak bide eman du udal baliabideak optimizatzeko, erakundea berriro dimentsionatzeko eta egoera ekonomiko txar honetan Udalaren ahalmen ekonomikoa indartzeko. Horri esker, aurrezki garbia handitzeko ahaleginaz egingo zaio aurre 2014ko ekitaldiari, Sopelako herritarren eskari eta beharrei erantzuten jarraitu ahal izateko.

Diru-sarrerak %4,45 igoko direla aurreikusten da, batez ere, udal zerga zuzenengatiko sarrerak %6,5 igoko direla aurreikus daitekeelako eta Udalkutxaren aurrerakina %7 igoko dela iragarri duelako Bizkaiko Foru Aldundiak.

Sarreraren I, II eta III. kapituluetan, aurreikuspenak aurreko ekitaldiko diru-bilketako datuak kontuan hartuz egin dira, Osoko Bilkurak 2014. urterako adostu dituen tarifak aplikatuz. OHZren kudeaketan azken bi ekitaldiotan egindako hobekuntzei esker eta ordenantza fiskaletan egindako aldaketek bilketa handiagoa izango dela aurreikustea ahalbidetzen dute.

Goranzko aurreikuspen hauek Eraikuntza eta Obren gaineko zergaren beheranzko joerak galgatuko ditu. Izan ere, 2014rako 2013rako aurreikus zitekeena baino % 37,5 gutxiago biltzea aurreikusten da. Tasak eta prezio publikoen bilketak ere, gora baino, behera egin dezake, obren eta irekiera-lizentzien eskaera behera doalako eta, horrenbestez, kontzeptu honengatiko diru bilketak ere behera egin dezakeelako.

IV. Kapituluak Udalkutxatik jasoko den ekarpena jasotzen du, baita Udalak hainbat proiektu finantzatzeko jaso ditzakeen diru-laguntzen aurreikuspena ere. Gainerako kapituluetan, beharrezko doikuntzak egin dira, aurreikuspenen arabera.

Udalak, beraz, gasturako eta inbertsiorako ahalmen handiagoa izango dueneko aurreikuspenarekin egiten dio aurre 2014ko ekitaldiari.

Gastuen I. Kapitulua bere horretan eusteko doitu da. Gora egiten du hondartzetako komunak eta dutxak garbitzeko aldi baterako programaren ondorioz, Elkarkidetzari egiten zaion ekarpena berreskuratu egingo delako eta udal langileen gizarte segurantzaren gastuak igo egin direlako. Alabaina, kapitulu hau 2012an, onartu zen azken aurrekontuan, zuen kopurua baino %3,8 gutxiagoko kopuruan mantentzen da.

II. kapituluak %4,37 igotzen da 2013rako hasierako aurreikuspenekin alderatuz gero; IV kapituluak %2,45 jaitsiz doitu da eta VI kapituluak, inbertsio errealeak, % 43,08 egiten du gora, 2013ko aurrekontuan jasotako aurreikuspenekin alderatuta.

Azkenik, ez da jaso inolako kopururik finantza gastu eta pasiboetarako, zor guztia kitatu baita 2013ko ekitaldian.

6.- 2014KO EKITALDIKO AURREKONTU-PROIEKTUAN EGIN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK, 2013KO EKITALDIKOAREN ALDEAN

2013. eta 2014. urteen arteko diferentziak				
DIRU-SARRERAK	2013. URTEA	2014. URTEA	Aldeak	%
I K ZUZENEKO ZERGAK	2.631.446,41	2.802.596,27	171.149,86	%6,50
II K ZEHARKAKO ZERGAK	400.000,00	250.000,00	-150.000,00	-%37,50
III K TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK	1.553.970,00	1.509.875,74	-44.094,26	-%2,84
IV K TRANSF. ARRUNTAK	7.199.986,00	7.733.614,00	533.628,00	-%7,41
V K ONDAR. SARRERAK	139.800,00	161.813,73	22.013,73	%15,75
<i>ERAGIKETA ARRUNTAK</i>	<i>11.925.202,41</i>	<i>12.457.899,74</i>	<i>532.697,33</i>	<i>%4,47</i>
VI K BESTERENTZEAK				
VII K KAPITAL TRANSF.				
VIII K FINANTZA-AKTIBOAK	50.000,00	50.000,00	0,00	0,00%
IXK FINANTZA-PASIBOAK				
<i>KAPITAL ERAGIKETAK</i>	<i>50.000,00</i>	<i>50.000,00</i>	<i>0,00</i>	<i>%0,00</i>
GUZTIRA	11.975.202,41	12.507.899,74	532.697,33	%4,45

2013. eta 2014. urteen arteko diferentziak				
	2013. URTEA	2014. URTEA	Aldeak	
I K LANGILERIA GASTUAK				
II K GASTU ARRUNTAK	5.067.012,24	5.258.796,96	191.784,72	%3,78
III K FINANTZA-GASTUAK	4.842.910,85	0,00	211.659,61	%4,37
IV K TRANSF. ARRUNTAK	13.720,00	0,00	-13.720,00	-%100,00
<i>ERAGIKETA ARRUNTAK</i>	<i>1.286.037,01</i>	<i>1.254.544,89</i>	<i>-31.492,12</i>	<i>-%2,45</i>
VI K INBERTSIOAK	11.209.680,10	11.567.912,31	358.232,21	%3,2
VII K KAPITAL TRANSF.	622.006,24	889.987,43	267.981,19	%43,08
VIII K FINANTZA-AKTIBOAK	8.000,00	0,00	-8.000,00	-%100,00
IX K FINANTZA-PASIBOAK	50.000,00	50.000,00	0,00	0,00%
<i>KAPITAL ERAGIKETAK</i>	<i>85.516,07</i>		<i>-85.516,07</i>	<i>-%100,00</i>
GUZTIRA	765.522,31	939.987,43	174.465,12	%22,79
I K LANGILERIA GASTUAK	11.975.202,41	12.507.899,74	532.697,33	%4,45

Aurrekontu-egituran ez da aldaketa orokorrik egin. 2012ko ekitaldian ezarri ziren egiturak aplikatuko dira, memoriaren 3. atalean jasotako aldaketa zehatzak salbu.

Sarrereren aldeak %4,45eko igoera du 2013ko aurrekontu prorrogatuarekin alderatuz, I. eta IV kapituluetan oinarrituta batez ere.

Gastuen aldeak horren pareko igoera du.

I. Kapituluak %3,78 egiten du gora, hondartzetako komunak eta dutzak garbitzeko aldi baterako programaren ondorioz, Elkarkidetzari egiten zaion ekarpena berreskuratu egingo delako eta udal langileen gizarte segurantzaren gastuak igo egin direlako.

II. Kapituluak %4,37an igoko da, prezioen igoeren ondorioz eta Zipiriñeko eskola, herri bideak eta saneamendu eta ur-hornikuntzaren sarearen mantentze-lanetarako partidak 100.000 eurotan handitu direlako.

IV Kapitulan gutxitu egin da sailez sail lehiaketa askerako diru-laguntzetako kopurua eta handitu egin da diru-laguntza nominatiboetarakoa. Horren zergatia da, urtero-urtero errepikatzen direla eskaerak egiten dituzten erakundeak, benetako lehiaketarik ez dagoelarik. Diruz nominatiboki laguntzea, erakunde bakoitzarekin sinatutako hitzarmenak oinarri, gastu publikoaren eraginkortasuna handitzea eta izapideak arintzea ahalbidetzen du .

VI. Kapituluak %43,08 igotzea aurreikusten da, Udal Lurzoru-ondarerako diru-sarrereren I. eta II. kapituluaren %10aren besteko kopuruaren aurreikuspena barne dagoelarik.

7.- AURREKONTU BATERATUA

"Sopelako Udal Euskaltegia" Erakunde Autonomoarekin bateratutako aurrekontua 12.794.268,37 eurokoa da.

	Sarrerak	Gastuak
a) Udalaren Aurrekontua	12.507.899,74 €	12.507.899,74 €
b) Euskaltegia EAren aurrekontua	457.341,19 €	457.341,19 €
BATERATUA GUZTIRA	12.790.164,98 €	12.790.164,98 €

Erakunde Autonomoaren aurrekontua 2013ko berdina da.

KAP CAP.		SARRERAK/INGRESOS		
		UDALA AYUNTAMIENTO	EUSKALTEGI	BATERATUTA CONSOLIDADO
I	IMPUESTOS DIRECTOS ZERGA ZUZENAK	2.802.596,27	0,00	2.802.596,27
II	IMPUESTOS INDIRECTOS ZERGA EZ ZUZENAK	250.000,00	0,00	250.000,00
III	TASAS Y OTROS INGRESOS TASAK ETA HAINBAT DIR SARERA	1.509.875,74	141.153,19	1.593.028,93
IV	TRANSFERENCIAS CORRIENTES TRANSFERENTZI ARRUNTAK	7.733.614,00	310.177,88	7.926.715,75
V	INGRESOS PATRIMONIALES PATRIMONIO SARRERAK OPERACIONES.CTES ERAGINAK ARRUNTAK	161.813,73 12.457.899,74	0,00 0,00	161.813,73 12.734.154,68
VI	ENAJENACIONES INVERSIONES REALES INBERTSIO ERREALEN SALMENTA	0,00	0,00	0,00
VII	TRANSFERENCIAS DE CAPITAL KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00	0,00	0,00
VIII	ACTIVOS FINANCIEROS FINANTZA AKTIBOAK	50.000,00	6.010,12	56.010,12
IX	PASIVOS FINANCIEROS FINANTZA PASIBOAK OPERACIONES CAPITAL KAPITAL ERAGIKETAK	0,00 50.000,00	0,00 6.010,12	0,00 56.010,12
	TOTAL/GUZTIRA	12.507.899,74	457.341,19	12.790.164,80

KAP CAP.		GASTUAK/GASTOS		
		UDALA AYUNTAMIENTO	EUSKALTEGI	BATERATUTA CONSOLIDADO
I	GASTOS DE PERSONAL PERTSONAL GASTUAK	5.258.796,96	405.290,72	5.664.087,68
II	GASTOS CORRIENTES GASTU ARRUNTAK	5.054.570,46	39.296,35	5.035.866,81
III	GASTOS FINANCIEROS FINANTZA GASTUAK	0,00	0,00	0,00
IV	TRANSFERENCIAS CORRIENTES TRANSFERENTZI ARRUNTAK	1.254.544,89	0,00	1.137.468,76
	OPERACIONES.CTES ERAGINAK ARRUNTAK	11.567.912,31	446.507,64	11.839.343,82
VI	INVERSIONES INBERTSIOAK	889.987,43	8.927,00	898.914,43
VII	TRANSFERENCIAS DE CAPITAL KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00	0,00	0,00
VIII	ACTIVOS FINANCIEROS FINANTZA AKTIBOAK	50.000,00	6.010,12	56.010,12
IX	PASIVOS FINANCIEROS FINANTZA PASIBOAK	0,00	0,00	0,00
	OPERACIONES CAPITAL KAPITAL ERAGIKETAK	939.987,43	14.937,12	954.924,55
	TOTAL/GUZTIRA	12.507.899,74	457.341,19	12.790.164,80